

# HEZKUNTZA-SISTEMAN "KOMUNIKAZIO SISTEMA HANDIGARRIAK EDO/ETA ORDEZKOAK"(KSHO) INPLEMENTATZEKO PROTOKOLOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# HEZKUNTZA-SISTEMAN "KOMUNIKAZIO SISTEMA HANDIGARRIAK EDO/ETA ORDEZKOAK"(KSHO) INPLEMENTATZEKO PROTOKOLOA



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

<b>Argitalpena:</b>	1.a, 2022ko urria
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila
<b>Internet:</b>	<a href="http://www.euskadi.eus/publicaciones">www.euskadi.eus/publicaciones</a>
<b>Argitaratzailea:</b>	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco C/Donostia-San Sebastian, 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ
<b>Diseinua eta maketazioa:</b>	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
<b>Estalkiaren irudia:</b>	Pixabay

# AURKIBIDEA

<a href="#">Sarrera</a> .....	5
<a href="#">Eginkizunak eta ardurak</a> .....	8
<a href="#">Laburpen taula</a> .....	12
<a href="#">Ikaslearen karpeta sartu beharreko dokumentuak</a> .....	13
<a href="#">1 eranskina</a> .....	14
<a href="#">2 eranskina</a> .....	15
<a href="#">3 eranskina</a> .....	20
<a href="#">4 eranskina</a> .....	23
<a href="#">5 eranskina</a> .....	27
<a href="#">Bibliografia</a> .....	29

## SARRERA

### Zer dira Komunikazio sistema handigarriak eta ordezkak (KSHO)?

Komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak ahotsarekin hitz egin gabe komunikatzeko moduak dira.

"Komunikazio Sistema Handigarriak edo/eta ordezkak" (KSHO) mintzamenaren bestelako adierazpideak dira, eta adierazpen-maila (handigarria) eta/edo pertsona batzuek arlo horretan dituzten komunikazio-zailtasunak konpentsatzea (ordezkoa) dute helburu.

Javier Tamaritek honela definitzen du KSHO: ahozkoak ez diren kodeen multzo egituratu bat da, euskarri fisikoa behar dutenak edo ez, ordezkaritza-funtzioak ahalbidetzen dituztenak eta komunikazio-egintzak beren kabuz edo ahots-kodeekin konbinatuz gauzatzeko balio dutenak<sup>1</sup>.

### Noiz erabili behar dugu?

HSHOak erabiltzen dira ikasleak oso hizkuntza pobrea eta/edo ez oso funtzionala duenean eta eraginkortasun handiagoz komunikatzeko laguntza behar duenean, adibidez keinuaz, eskuzko zeinuak, hitz osatua, argazkiak, piktogramak... erabiliz.

### Nork erabili dezake?

Garun paralisia (PC), adimen-desgaitasuna, espektro autistaren nahasmenduak (TEA), albo-esklerosi amiotrofi-koa (ELA), entzumen-desgaitasuna, esklerosi aniz-koitza (EM), parkinsona, muskulu-distrofiak, traumatismo kranio-entzefaliko edo bakarrik hitz egin ez bere komunikazio-beharrak ase ezin dituen edonork erabili dezake KSHO bat.

Komunikazio Sistema Handigarri eta Ordezkoak (KSHO) ez dira bateraezina, baizik eta hizketa naturalaren osagarriak eta, gainera, haren garapenerako lagungarriak izan daitezke. Beraz, ez da zalantzarik izan behar adin goiztiarretan sartzeko, ahozko hizkuntza garatzeko zailtasunak ikusi bezain laster, edo edozein istripu edo gaixotasunek narriadura eragin eta gutxira. Ez dago inolako ebidentziarik esateko KSHO erabiltzeak hizketaren garapena edo berreskurapena eragozten edo oztopatzen duenik.

### Zenbat KSHO mota daude?

Komunikazio-sistemen ezaugarriak kontuan hartuta, honela sailka ditzakegu:

- Laguntzarik gabeko komunikazio-sistema handigarri eta ordezkak (KSHO): Komunikazio-sistema horietan, besteekin komunikatu nahi duen pertsonak bere gorputza baino ez du behar

<sup>1</sup> Los sistemas alternativos de comunicación "son instrumentos de intervención destinados a personas con alteraciones diversas de la comunicación y/o lenguaje, y cuyo objetivo es la enseñanza mediante procedimientos específicos de instrucción de un conjunto estructurado de códigos no vocales necesitados o no de soporte físico, los cuales, mediante esos mismos u otros procedimientos específicos de instrucción, permiten funciones de representación y sirven para llevar a cabo actos de comunicación (funcional, espontánea y generalizable), por sí solos, o en conjunción con códigos vocales, o como apoyo parcial a los mismos, o en conjunción con otros códigos no vocales"

hori gauzatu ahal izateko.

- Komunikazio sistema handigarriak eta ordezkioak (KSHO) laguntzarekin. Nolabaiteko materiala edo laguntza teknikoa behar duten komunikazio-sistemak dira. Esate baterako, komunikazio-aulak, ordenagailuak, etab.

### **Nola jakin KSHO bat erabiltzea egokia den?**

KSHOen erabilera, hizketaren bidez komunikazio-beharrak ase ezin dituen edozein pertsonarentzako erabilgarria izan daiteke.

*Erabakia hartzeko komunikazio screening-a erabili daiteke (1. Eranskina).*

### **Nola hasiko gara KSHO erabiltzen?**

Ikasle batekin KSHO bat erabiltzen hasten garenean, alderdi desberdinak aztertu behar ditugu: ikaslea eta bere gaitasunak, testuinguruak eta solaskideak.

Ikaslearen ebaluazioa egiteko hainbat arlo izan behar ditugu kontuan:

- sistema ikasteko oinarritzko jokabideak (arreta, imitazioa),
- komunikazio-maila eta daukan ulermen- eta adierazpen-hizkuntzaren maila,
- garapen kognitiboaren maila,
- mugitzeko eta/edo manipulatzeko zailtasunak (koordinazio espaziala, koordinazio dinamikoa), kontrol neuromuskularrerako zailtasunak (jarrera-tonua, lerdea jatea kontrolatzea...),
- pertzepzio-arloak (ikusmene-koak, entzumenekoak eta ukimenezkoak),

- besteekin eta ingurunearekin ezartzen dituen integrazio-maila eta harremanak.

Testuinguruak: ikaslea egunean zehar non egoten da (gelak, jantokia, patioa,...). Kontuan izan behar da espazio desberdinetan izango dituen komunikatzeko beharrak.

Solaskideak: ikaslea norekin egoten da?, norekin komunikatu behar da?, gelakideak, irakasleak, familia,...

*Hasierako ebaluazio hau egiteko [2. eranskina](#) erabili daiteke.*

*Beste tresna hauek ere erabili daitezke: [Hitos de comunicación](#) edo [communication matrix](#).*

### **KSHOen implementazioa "Ebaluazio Psikopedagogikoen" prozesuan barne egon behar da**

Ebaluazio psikopedagogikoa zera da: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragina duten alderdiei buruzko informazio testuinguratu biltzea, aztertzea eta baloratzea, hezkuntzako esku-hartzea egokitze. Prozesu horretan inplikaturako profesional guztiek hartzen dute parte eta koordinazio saioak antolatzea ezinbestekoa da. Izan ere, laguntza-premia espezifikoak detektatu ondoren, beharrezkoa da berehalako hezkuntza-esku-hartzea, ikasle guztien parte-hartzea eta ikaskuntza erraztuko duten arreta-proposamen pertsonalatuak kontuan hartuta.

Beraz, ikaslea zein testuingurutan bizi den ebaluatu eta esku hartu behar da (familia-testuingurua barne). Gainera, inplikaturako profesionalak eta familiek parte hartuko duten lankidetzaren esparru baten barruan jardun behar dugu.



Komunikazio-zailtasunei lotutako hezkuntza-premiak dituzten kasuetan ebaluazio psikopedagogikoa egiteko ezarritako prozedura honako hau da:

- Entzumen eta hizkuntzako irakasleek (EHI) edo logopedek HPBko aholkulariekin lankidetzan aritzen dira komunikazioaren eta hizkuntzaren esparruko beharren ebaluazioan, eta, hala badagokio, KSHO erabiltzeko beharra, banakako curriculum-egokitzapean jasotzen du. Erabaki horiek lankidetzaren esparru batean hartzen dira, eta familiak eta Arreta Goiztiarreko esku-hartze taldeekin (AGET) koordinatu behar da KSHOaren aukeraketa eta erabilera adosteko.
- Profesional espezializatuek: EHIak edo logopedak, pedagogia terapeutikako irakaslea (PT), aholkularia, eta ikastetxeko irakasleek -bakoitzak bere lanbide-gaitasunetatik- KSHOa diseinatuko dute. Ikasteko estrategiak eta hainbat testuingurutara transferitzeko estrategiak adosten dituzte. Beste aldetik, irakatsi eta ikasteko jarraitutako prozesua ebaluatzen dute.
- Zentroan eskuragarri ez dagoen baliabide teknologiko bat (hardwarea, softwarea) eduki behar dela erabakiz gero, okupazio-terapeutak (OT) esku hartzen du, ikaslearen tresna erabiltzeko gaitasunak aztertu, teknologia egokiena aukeratu, baliabideen eskaria egin eta tresnaren erabileraren trebakuntza eta jarraipena egiten laguntzen du. Tresna hauek eskuratzeko ezarrita dagoen prozedura erabiliko da eta HPBko aholkulariak W67 aplikazioan adierazten du.

- Beharrezkoa balitz, HPB aholkulariek eta/edo terapeuta okupazionalak prozesu osoan zehar aholkatzen dute.

### **Nola jokatu behar dugu eskuhartzea martxan jartzeko?**

HPBko aholkulariak, aholkulariarekin/orientatzailearekin batera, KSHOaren eskurapenaren eta erabileraren jarraipena koordinatzen du hainbat testuingurutan. Inplikaturako guztien arteko koordinazio-uneak ezartzen dira: tutorea, irakasleak, profesional espezialistak -EHI, PT, OT, hezkuntza laguntzako espezialistak (HLE), familia eta AGETak-, eta Ikastetxeko Urteko Planean jaso behar dira.

Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen prestakuntza-eskaintzez gain (PREST-GARA eskaintza, profesional espezialistei zuzendutako mintegiak eta prestakuntza...), komenigarria da ikastetxeetan ere formazio saioak antolatzea, bereziki KSHOen erabiltzaileak dauden zentroetan, zeren ikastetxeko prestakuntza-modalitateak era zuzen eta koordinatuan lan egitea bermatzen du.

### **Laguntza eta lankidetzaren foroa**

Proposamen bat diseinatuko da KSHOekin lan egiten duten profesionalek esperientziak, zailtasunak, zalantzak, materialak eta abar partekatzeke espazio birtual bat izateko.

## EGINKIZUNAK ETA ARDURAK

ZER	NORK	OHARRAK
IKASLEAK KSHO (SAAC) BEHAR DU?	<b>Ikaslearekin lan egiten duten profesional espezializatuak tutorearekin batera.</b> <b>Kontsultorea/orientatzailea:</b> ikasleari buruzko informazioa ( eranskinak, norbanako jarduera plana, txostenak...) jaso, kudeatu eta ikaslearen karpeta gordeko du.	KSHO baten erabileraren beharra ezarrita dagoen ebaluazio psikopedagogikoaren prozesuaren parte da. <b>*1 ERANSKINA (Screening)</b>
KSHO erabiltzailearen HASIERAKO BALORAZIOA EGITEA	<b>HPB aholkularia edo/eta kontsultorea/orientatzailea:</b> ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoaren informazioa partekatzen du, guztion artean hasierako balorazioa osatzeko. <b>EHI:</b> ikaslearen komunikazioaren funtzioak aztertzen ditu. <b>OT:</b> beharrezkoa den kasuetan, ikasleak sistema nola erabiliko duen aztertuko du: begiradaren bidez, pulsadoreak,... <b>PT tutorea edo/eta HLE:</b> informazioa eskaini ( ikaslearen ezaugarriak, galdetegia bete-tzea, ...).	<b>*2.ERANSKINA (hasierako balorazioa)</b> Beste batzuk: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Communication matrix: <a href="#">Home Page - Communication Matrix</a></li> <li>• Hitos de comunicación: <a href="#">Hitos para la comunicación - El blog de BJ Adaptaciones</a></li> </ul> Familiarekin hitz egingo da informazio osagarria jasotzeko.
KOMUNIKAZIO TRESNA AUKERATZEA	<b>EHI:</b> komunikazio tresna zein izango den aukeratuko du, behar izanez gero <b>OT</b> aren laguntza edo aholkularitza izan dezake. <b>Familia:</b> familiaren iritzia kontuan hartuz.	Familiarengandik informazioa eta iritzia jasotzea beharrezkoa da. Familiaren kolaborazioa lagungarria da. Kanpoko zerbitzuekin (arreta goiztiarra, ASPACE, beste Zentro pribatuak,...) sistema bera adosteko.
KOMUNIKAZIO TRESNA ESKAERA EGITEA ETA MATXUREN KONPONKETAK KUDEATZEA	<b>HPBko aholkulariak</b> W67 aplikazioan dagokion kodeak erregistratu behar ditu (B eta C taldean). <b>OT:</b> horretarako HPB-ak dituzten ikasleentzako materiala eskatzeko prozedura erabiliko du.	<b>*150€</b> baino gutxiagoko materiala eta konponketak ikastetxeak bere gain hartuko ditu. Laguntza teknologikoak eskuratzeko ezarrita dagoen prozedura erabiliko da eta HPBko aholkulariak W67 aplikazioan adieraziko du.
KSHOaren HASIERAKO KONFIGURAZIOA EDO DISEINUA EGITEA	<b>EHI:</b> KSHOaren hasierako diseinua egingo du ( zenbat mezu, hasierako hiztegia, formata... ). <b>EHI+ OT*</b>	<b>*OT</b> parte hartzen du sistemak konfigurazio berezia behar duen kasuetan (begiradaren bidezko sarbidea, pulsadoreak...).



ZER	NORK	OHARRAK
ESKUHARTZEA	<p><b>Ikaslearekin lan egiten duten guztiek parte hartu behar dute.</b></p> <p><b>Tutorea:</b> ikaslearen hezkuntza prozesuaren arduraduna da eta prozesuaren barne egongo da. Gela egonkorretan tutorea PTa da.</p> <p><b>PT</b> gela arruntetan komunikazio sisteman beharreko moldaketak egingo ditu (hiztegia sartu, komunikadorearen tamaina...) eta erabilera bultzatuko du.</p> <p>Komunikadorearen mantenimendua ( kargatuta dagoela ziurtatu, leku seguru batean gorde, ...) bermatuko du.</p> <p><b>EHI:</b> komunikazio sistemaren erabileraren aurrerapenak eta beharrak baloratu eta aholkatuko du. Sistema eguneroko errutinetan nola erabili behar den beste profesional eta familiei irakatsiko die (ikasleak komunikazio sistema erabiltzen ikasteko modelatua, errutina bakoitzean zein hiztegi erakutsi, ea).</p> <p><b>HLE:</b> ikaslekin KSHO (SAAC) egunerokotasunean erabiliko du.</p> <p><b>OT:</b> laguntza teknologia behar denean, honen erabileraren jarraipena eta beharrezko moldaketak aztertu eta egingo ditu. Baita beste profesionaleri aholkularitza emango die.</p> <p><b>Familia:</b> ikaslearen inguruko informazio esanguratsua eskeini eta eskolako profesionalekin koordinatu. Oso lagungarria da eskolaz kanpoko testuinguruetan KSHOen erabilera sustatzea.</p> <p><b>Beharrezkoa balitz, HPBko aholkulariak edo/eta OTak prozesu osoan aholkatzen dute.</b></p>	<p><b>*KSHO</b>ak arrakasta izateko, kontuan hartu behar da ikaslea dagoen testuinguru desberdinetan erabili behar dela eta ikaslearekin hartu-emanaren duten profesional guztiek erabili behar dutela.</p> <p>KSHOen erabilera orokortu eta sendotzeko familiaren kolaborazioa lagungarria da.</p> <p>Kanpoko zerbitzuekin (arreta goiztiarra, ASPACE, beste zentru pribatuak, ea) koordinatu behar da.</p> <p>KSHOak erabiltzen ikasteko modelatua erabili ohi da. Informazio gehiago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Estrategias de intervención: <a href="#">CAA - Alfasaac</a>.</li> <li>• Cómo empezar a modelar: <a href="#">Empezar a modelar - AssistiveWare</a></li> <li>• Importancia de modelar en CA: <a href="#">La importancia de modelar en Comunicación Aumentativa - El blog de BJ Adaptaciones</a></li> </ul>

ZER	NORK	OHARRAK
KOORDINAZIO UNEAK PLANIFIKATZEA	<p><b>Zuzendaritza taldeak:</b> inplikaturik dauden profesionalen arteko koordinazio uneak Urteko Planean isladatuko ditu.</p> <p><b>Kontsultorea/ orientatzaileak:</b> koordinazio saioak antolatu (tokia bilatzea eta parte-hartzaileei deitzea) eta koordinatuko ditu. Kanpoko zerbitzuekin (arreta goiztiarra, ASPACE, beste zentru pribatuak,...) eta familiekin koordinazioa bermatuko du.</p>	<p>Hilero koordinazio bilera bat egitea gomendatzen den arren, gutxienez hiru hilabetean behin koordinazio bat egin behar da. Urteko Planean isladatu behar da.</p> <p>Ikaslearekin eskuhartze-harremana duten guztien arteko jarraipena eta koordinazioa egiteko modua edo plataforma erabaki behar da: emaila, drive, teams, ...</p> <p>Koordinazio saioetan aztertu beharreko gaiak: hiztegiaren beharra, aldaketak, ondo doazenak, hobetu beharrekoak, helburuak ezartzea, ea, ...</p> <p>Kanpoko zerbitzuekin (arreta goiztiarra, ASPACE, beste zentru pribatuak, ea) koordinazio saioak planifikatu behar da.</p> <p>Familiekin elkarlana egitea oso eraginkorra da, komunikazio helburuak lortzeko.</p> <p><i>Lagungarria izan daiteke, online plataforma batean ikaslearen inguruko informazioa partekatzea (eranskinak, programazioa, KSHOaren hasierako diseinua, ea)..</i></p>
ESKOLAKO PROFESIOALEN FORMAZIOA ANTOLATZEA	<p><b>Zuzendaritza-taldeak:</b> formazioa kudeatu behar du ( eskolako formazioaren barne edo/ eta Hezkuntzako Kanpoko Zerbitzuen laguntzaz).</p> <p><b>Kontsultorea/ orientatzaileak:</b> formazioa koordinatu behar du.</p> <p><b>HPBko aholkulariak:</b> formazio eskaintza bultzatu eta erraztu behar du. Kasu batzuetan zonaldeko edo lurraldeko formazio proposamena egingo du.</p>	<p>Komenigarria da eskola batean ikasle batek komunikazio sistema bat erabiltzen duenean, formazio bat egitea klaustro osoari edo behintzat ikaslearekin lan egiten duten guztiekin.</p> <p>Komunikazio softwareen erabilera (tableroen edizioa, erabiltzailerari egokitzea,...) OTak azaldu dezake.</p>
KSHOen (SAAC) ERABILERA- REN EBALUAZIOA EGITEA	<p>KSHO erabiltzen irakasten ari diren profesionalak: <b>tutorea, HLE, EHI eta PT.</b></p> <p><b>Familiaren kolaborazioarekin.</b></p>	<p>* <a href="#">3 ERANSKINA.</a> (komunikadorearekin hasten garenean-jarraipena)</p> <p>* <a href="#">4 ERANSKINA.</a> (hiztegia)</p> <p>Informazio osagarria: : <a href="https://escuelaac.com/course/analisis-del-lenguaje-asis-tido/">https://escuelaac.com/course/analisis-del-lenguaje-asis-tido/</a></p>

ZER	NORK	OHARRAK
KSHOen (SAAC) erabileraren PROFESIONAL BAKOITZAREN ARDUREN EBALUAZIOA EGITEA	<b>HPBko Aholkulariak/ kontsultorea edo orientatzaileak</b> hiruhilabetean behin profesional bakoitzaren ardurak bete diren aztertu behar du (koordinazio bakoitzeko hartutako erabakiak, horiek gauzatu diren ala ez, eta hala badagokio, aurkeztu diren zailtasunak, hobetu beharreko alderdiak...).	Protokolo honetan adierazten diren ardurak kontuan hartuz. * <a href="#">5 ERANSKINA</a>
KSHOen erabilerari buruzko informazio guztia (txostenak, eranskinak,...) jaso eta ikaslearen karpetan gorde.	<b>Aholkularia/orientatzaileak</b> informazio guztia gorde eta behar denerako eskuragarri egotea ziurtatu behar du (koordinazio saioetan, kurso aldaketa, ikastetxe aldaketa, ea). <b>Tutorea eta PT:</b> txostenak, eranskinak,... ikaslearen karpetan gorde.	Oso garrantzitsua da ikaslea ikastetxe edo etapa aldaketa bat egingo duenean, honen inguruan dagoen informazio guztia helaraztea berarekin lan egingo duten profesionalak eskuragarri izan dezaten. Zuzendari Taldeak( bereziki ikasketa buruak) hau bermatzeko prozedurak martxan jarri behar ditu.

## LABURPEN TAULA

JARDUERAK	NOREN ARDURAK								
	HPB aholkulari	Kontsultorea/Orientatzaile	Tutorea	PT	EHI/logo-peda	HLE	OT	FAMILIA	ZUZENDARITZA TALDEA
KSHOaren erabileraren beharra detektatzea	X	X	X	X	X	X	X	X	
Sistema handigarri eta ordezkoaren erabileraren hasierako balorazioa egitea	X	X	X	X	X	X	X*	X	
Komunikazio tresnaren aukeratzea					X		X**	X	
Komunikazio tresna eskaera egitea eta matxuren konponketa kudeatzea	X >150€						X >150€		X >150€
KSHOaren hasierako konfigurazioa egitea						X	X**		
Eskuhartzea	X		X	X	X	X	X	X	
Koordinazio uneak planifikatzea		X							X
Eskolako profesionalen formazioa antolatzea	X	X							X
Komunikadore/tresnaren mantenimendua (bateria, gordetzea,...) egitea				X					
KSHOen (SAAC) erabileraren ebaluazioa egitea		X	X	X	X	X	X*	X	
Profesional bakoitzaren arduren ebaluazioa egitea	X	X							
KSHOen erabilerari buruzko informazio guztia (txostenak, eranskinak,...) jaso eta ikaslearen karpetan gordetzea		X	X	X					

\*ikastetxeetan eskuragarri ez dagoen teknologia edo software berezia behar denean. Tresna hauek eskuratzeko ezarrita dagoen prozedura erabiliko da eta HPBko aholkulariak W67 aplikazioan adierazten du.

\*\* OT parte hartzen du sistemak konfigurazio berezia behar duen kasuetan (begiradaren bidezko sarbidea, pulsadoreak, ...). Eskatutako materialak (software/hardware) erabiltzeko zalantzak daudenean laguntza eman dezake.

## IKASLEAREN KARPETAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Ikasleen eta haien testuinguruko informazioa profesional guztiek eskuragarri izan behar dute.

KSHOen erabilerari lotutako beharrak detektatzen direnean (1. eranskina edo antzekoak) ikasleen espedientean honako txostenak gorde behar dira

- Ebaluazioa:
  - ▷ Hasierako ebaluazioa (2. eranskina edo antzekoak)
  - ▷ Amaierako ebaluazioa (2. eranskina edo antzekoak)
  - ▷ Lankidetzaren jardueraren ebaluazioa (5. eranskina edo antzekoak)
- Esku-hartzea (3 eta 4. eranskina edo antzekoak).

## 1. ERANSKINA

### KOMUNIKAZIO SCREENING-A: Jatorria(tobii dynavox)

Komunikazio zailtasunak dituzten ikasleen gaitasunei buruzko galdetegi honek KSHOak arakatu behar diren zehazten lagun dezake.

	BAI	EZ
1 Ikasleak daukan diagnostikoagatik (garun paralisia, autismoaren espektroaren nahastea, ...) komunikazio eta hizkuntzan zailtasunak izateko arriskua du?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2 Ikasleak bere ezagunek ulertzen dituzten 20 hitz/keinu/ikur baino gutxiago erabiltzen du?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3 Ikasleak ideiak komunikatzeko zailtasunak ditu: zerbait eskatzeko, istorio bat kontatzeko, ideia bat azaltzeko, adibidez?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4 Eguneroko behar basikoak asetzeko zailtasunak ditu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5 Ikaslea ahoz komunikatzen saiatzen da baina entzule gehienentzako ez da ulergarria?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6 Ikaslea frustratu eta jokabide ez egokiak izaten ditu besteekin ezin denean komunikatu??	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7 Interakzio sozialean interesa du, baina ez du horretarako ahozko gaitasunik?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8 Besteekiko interakzio soziala hasteko zailtasuna du?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9 Objektuak, argazkiak edo irudiak eskatzeko erabiltzen ditu gehien bat eskatzeko, baina hizkuntzaren funtzioak areagotzeko modu bat behar du?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10 Garapen eskaletan hizkuntzaren ulermen edo adierazpenean bere adinetik beherako gaitasuna du? ?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11 Ez du Bai/ez erantzun fidagarririk?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12 Bere ikaskideekin elkarrizketetan parte hartzeko zailtasunak ditu?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13 Solaskide ezagun baten laguntza behar izaten du besteekin eraginkortasunez komunikatzeko?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14 Ez du hitzik egiten eta arrakasta gehiago dauka aurpegiko keinuak, gorputzaren mugimenduak, keinuak edo jarrera (egokia edo ez aproposa) erabiliz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15 Irudiek ulermena eta adierazpena areagotzeko balio dute?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16 Ikaslearentzako eguneroko ekintzetan parte hartzeko zailtasunak ditu (gelako ekintzak, kalean, ea)?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Zenbat erantzun izan dira BAI?

5 erantzun edo gehiago BAI izan badira komunikazio handigarrian esku-hartzeko hauta-gaia izan daiteke.

## 2. ERANSKINA

### KSHO ERABILERA- HASIERAKO BALORAZIOA

Ikaslea	Ikastetxea	Jaiotze data
Nortzuk betetzen dute galdetegia		Maila
		Betetze data
Oharrak (diagnostikoa, kanpo zerbitzuak, ea):		

#### JARRAIBIDEAK

<p>a. Galdetegi honen helburua, komunikazio zailtasunak dituen ikasleen behar eta ezaugarriak ezagutzea da, datu hauekin KSHO erabiltzen hasteko lagungarria den informazioa jaso daiteke.</p> <p>b. Galdetegi hau, ikaslearekin lan egiten duten profesionalak beteko dute (tutorea, EHI, PT,ea). Familien laguntzarekin informazioa jaso behar da.</p> <p>c. Beharrezkoa denean okupazio-terapeuten laguntza eskatuko da (Irisgarritasun fisikoari edo/eta laguntza-teknologiaren erabilerari buruzko aholkularitza behar denean).</p> <p>d. Ez da beharrezkoa atal guztiak betetzea, soilik ikasleari buruzko informazio garrantzitsua ematen dutenak edo eskuragarri daukagun informazioa.</p> <p>e. Garrantzitsua da ikaslearen komunikazio-gaitasunak jasotzea hainbat testuingurutan eta pertsona desberdinekin.</p> <p>f. Erregistro honetako datuek aukera ematen digute KSHO baten bidez komunikazio-gaitasuna garatzeko programa bat abian jartzeko</p>
--

ARLO SENTSORIALA: IKUSMENA
Ikusmen arazoak <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

ARLO SENTSORIALA: ENTZUMENA
Entzumen arazoak <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

MUGIMENDUA
Mugimendu arazoak
<input type="checkbox"/> Oinez <input type="checkbox"/> Gurrildun aulkia <input type="checkbox"/> Andadorea <input type="checkbox"/> Oinez baina traketsa
Motrizitate fina-arazoak <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
<input type="checkbox"/> Baiezkoa denean, OT aren balorazioa eskatu



<b>HIZKUNTZAREN ULERMENA</b>	
<b>Inguruan/pantailan/ekintzan aldaketak daudenean erantzuten du:</b>	
<input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
<b>Ezagutzen dituen pertonekin erantzun desberdina adierazten du:</b>	
<input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
<b>Bere izena entzuten duenean erantzuten/begiratzen du:</b>	
Maiztasuna: <input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
Ingurua: <input type="checkbox"/> Etxean <input type="checkbox"/> Eskolan	
Solaskideak: <input type="checkbox"/> Familia <input type="checkbox"/> Irakasleak <input type="checkbox"/> Ezagunak <input type="checkbox"/> Ezezagunak	
<b>Objektuak/irudiak/gorputz atalak ezagutzen ditu:</b>	
Maiztasuna: <input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
Laguntzak: <input type="checkbox"/> Ez du behar <input type="checkbox"/> Ahoz <input type="checkbox"/> Keinua <input type="checkbox"/> Fisikoa <input type="checkbox"/> Ez du erantzuten	
Ingurua: <input type="checkbox"/> Etxean <input type="checkbox"/> Eskolan	
Solaskideak: <input type="checkbox"/> Familia <input type="checkbox"/> Irakasleak <input type="checkbox"/> Ezagunak <input type="checkbox"/> Ezezagunak	
<b>Argazkiak, liburuak, pelikulak ikustea gustuko du?</b>	
Maiztasuna: <input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
Laguntzak: <input type="checkbox"/> Ez du behar <input type="checkbox"/> Ahoz <input type="checkbox"/> Keinua <input type="checkbox"/> Fisikoa <input type="checkbox"/> Ez du erantzuten	
Ingurua: <input type="checkbox"/> Etxean <input type="checkbox"/> Eskolan	
Solaskideak: <input type="checkbox"/> Familia <input type="checkbox"/> Irakasleak <input type="checkbox"/> Ezagunak <input type="checkbox"/> Ezezagunak	
<b>Hitz/ikur solteak ulertzen ditu?</b>	
Maiztasuna: <input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
Laguntzak: <input type="checkbox"/> Ez du behar <input type="checkbox"/> Ahoz <input type="checkbox"/> Keinua <input type="checkbox"/> Fisikoa <input type="checkbox"/> Ez du erantzuten	
Ingurua: <input type="checkbox"/> Etxean <input type="checkbox"/> Eskolan	
Solaskideak: <input type="checkbox"/> Familia <input type="checkbox"/> Irakasleak <input type="checkbox"/> Ezagunak <input type="checkbox"/> Ezezagunak	
<b>Esaldiak edo ikur sekuentziak ulertzen ditu?</b>	
Maiztasuna: <input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
Laguntzak: <input type="checkbox"/> Ez du behar <input type="checkbox"/> Ahoz <input type="checkbox"/> Keinua <input type="checkbox"/> Fisikoa <input type="checkbox"/> Ez du erantzuten	
Ingurua: <input type="checkbox"/> Etxean <input type="checkbox"/> Eskolan	
Solaskideak: <input type="checkbox"/> Familia <input type="checkbox"/> Irakasleak <input type="checkbox"/> Ezagunak <input type="checkbox"/> Ezezagunak	
<b>KOMUNIKAZIO INTENTZIOA</b>	
<b>Begirada objektu eta solaskidearen artean partekatzen du</b>	
Maiztasuna: <input type="checkbox"/> Gehienetan <input type="checkbox"/> Batzuetan <input type="checkbox"/> Gutxitan <input type="checkbox"/> la inoiz	
Laguntzak: <input type="checkbox"/> Ez du behar <input type="checkbox"/> Ahoz <input type="checkbox"/> Keinua <input type="checkbox"/> Fisikoa <input type="checkbox"/> Ez du erantzuten	
